

PROPOSAMENAK

BEGIRADAZALEA

0-6 URTE



«Begiradazalea» errealitearen ispilu bat da, neska-mutil askok ikusiko dute beren burua islatuta bertan, telefono mugikorren mendeko gizarte horretan. Baina dei, mezu, argazki, musika, sare sozial, aplikazio eta nabigatzeko web-orrien eskaintza amaiezina bada ere, ezer ez da “gauza zoragarrienekin” pareagarria. Horiek soilik erretinaren bidez hauteman daitezke, eta ez pantaila batean zehar.

ENE ITSUGIDARI, ENE KAPITAIN

6-8 URTE



Emozioa eta edertasuna, aita baten eta haren alabaren arteko maitasun sakona, eta ikusteko mugetatik harago ikusteko gaitasuna, horiek guztiak agertzen dira liburu honetan.

IÑURRATEGI ANAIK - MENDIARI BIHOTZ EMANAK

KOMIKIA



Euskal mendizaletasunaren historian aparteko sokada izan da Felix eta Alberto Iñurategi osatutakoa: soka sendo bat, egiteko modu bat, sokalagunekiko nahiz babesleekiko leialtasun bat, mendia bere hedadura osoan aintzat hartzen jakin duen begirada bat.

ARRAKASTAREN APARRAK

HELDUAK- NOBELA BELTZA



Nobelan topatuko ditugu arrakastaren aparretan ibilitako negozio-gizonak, zikinkerietan lardaskan dabilzan kazetariak edo pistola errazegi dantzatzen duten gazte txoroak; baina, batez ere, bikote gazte "normal" bat, egun batean, legez kontrako baina inori kalterik egiten ez dion zerbait egiteagatik diru asko lortzeko aukera izango dutenak

COMO POLVO EN EL VIENTO

HELDUAK

GAUR EGUNGO LITERATURA



Haizeak duen hauts gisa, lagun talde baten istorioa da. Bartzelonan, Estatu Batuetako ipar-mendebaldeko muturrean, Madrilen, Puerto Ricon, Buenos Airesen... bizi izan den lagun talde baten istorioa da. Zer egin du bizitzak haiekin, hainbeste maite izan baitzituzten? Zer gertatu da joan zirenekin eta geratzea erabaki zutenekin?